

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Txikizkako saltokien lehiakortasuna hobetzeko laguntzen deialdia egin da, 670.000 euro guztira

Eskaera-epea irailaren 6an amaituko da

Asteazkena, 2016.eko ekainak 8

Irailaren 6ra arte epea zabalik izango da txikizkako merkataritza-enpresek ekipamenduak nahiz azpiegiturak hobetzeko inbertsioak egiteko laguntzak eska ditzaten. 670.000 euroekin, diru-laguntzek merkaturako eskaerei etengabe egokitzeko prozesuak babesten dituzte eta, horrenbestez, sektoreko lehiakortasuna eta enplegua.

Deialdia iragan astelehenean, ekainak 6, Nafarroako Aldizkari Ofizialean [argitaratu](#) zen, eta www.navarra.es atariko [fitxa](#)ren bidez izapidetu daiteke. Zehazki, laguntzak txikizkako merkataritzan aritzen diren mikroenpresa, enpresa txiki eta ertainetarako dira. Bi urte edo gehiagoko antzintasuna eskatzen da merkataritza-establezimenduak modernizatzeko eta berritzeko proiektuetan inbertitzeko laguntzak eskuratzeko (620.000 euro); eta urtebete gutxienez berariazko proiektuetan inbertitzeko (50.000 euro).

Merkataritzako establezimendu bakoitzari eskatu daitekeen gutxieneko inbertsioa (BEZa kanpo) enpresaren tamainaren arabera da: mikroenpresak, 15.000; txikiak, 40.000; eta ertainak, 150.000.

Berrikuntza modura, baremazio-irizpideei erantsi zaie, establezimendua Kontsumoko Arbitraje Batzordearen barnean eta merkatarien elkarte baten barnean izatea, bai eta ondorengo kalitate-sistema ezarrita izatea ere: UNE 175001 Araua.



Establezimendu bakoitzak egin beharreko gutxieneko inbertsioa 15.000 eta 150.000 euro artean dago, enpresaren tamainaren arabera.